

8. AMALen 15. artikuluan aurreikusten diren zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen arteko bateragarritasuna ahalbidetzea (baita zerbitzuen artean ere), menpekotasunaren aurreko arreta egokia eta autonomia pertsonalaren sustapen eraginkorra bermatzeko

Menpekotasun-egoeran dagoen pertsona bakoitzak eguneroko zereginak gauzatzeko dauzkan beharrei erantzutea, sarritan, ezin da lortu zerbitzu edo prestazio bakar bat esleitzen baldin bada. Zerbitzu bat baino gehiago eta horiek eta prestazio ekonomikoak aldi berean erabiltzeak menpekotasun-egoeran dagoen pertsona bakoitzak dauzkan beharretarako arreta hobeto egokitzea ahalbidetzen du.

Kasu askotan, menpekotasunak edota ezgaitasunak gainkostu bat eragiten die egoera horretan dauden pertsonen eta haien familiei. Hori dela eta, prestazio ekonomikoak eta zerbitzuaren edo zerbitzu zehatz batzuen arteko bateragarritasunak hobetu egiten du pertsona horiei eskainitako arreta.

Bizkaiaren zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen artean dagoen bateraezintasunak ez dirudi egokia, adierazitakoaren arabera.

Arabaren eta Gipuzkoaren zerbitzuak eta prestazioak bateragarriak dira; baina, nolahi ere, prestazio ekonomikoen artean diskriminatzailea izan litekeen bateraezintasun bat dago. Hortaz, eguneko zentroko zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomiko bat jasotzen dutenek ezin dute familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikorik (FIZPE) jaso, baina sare foraleko eguneko zentroak erabiltzen dituzten pertsonen kasuan ez da gauza bera gertatzen. Bestalde, lurralde horietan aldi berean prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak erabiltzearen ondorioz aplikatzen diren murrizketak, kasu batzuetan, gehiegizkoak dira.

Zentzu horretan, gure ustez, komenigarria izango litzateke:

8.1. Bizkaiaren zerbitzu eta prestazioetarako ezarritako bateraezintasun-erregimena berrikus-tea, baita etxeko laguntza-zerbitzuarekin (ELZ) lotuta lurralde horretan zenbait udalerritan aplikatzen den irizpidea ere.

8.2. Araba eta Gipuzkoa lurraldeetan, lehen aipaturiko kasuan ezarrita dagoen prestazio ekonomikoen arteko bateraezintasun araubidea berriz aztertzea, baita prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak aldi berean ematen direnean aplikatu beharreko murrizketak ere.

9. Autonomiarako eta Menpekotasunaren Arretarako Sistema hobetzeko paper proaktiboa onartzea, Autonomiarako eta Menpekotasunari Arreta emateko Sistemaren (AMAS) Lurralde Kontseiluan Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek duten ordezkari-paperari jarraiki egindako lanaren bidez

Beraz, komenigarria izango litzateke Lurralde Kontseiluan parte hartzen duten herri-administrazioek beren jarduerak helburu hauetara bideratzea: